

Goierriarra

278. zenbakia 2005eko apirilak 8



Lore azoka
Seguran



Eskola

HERRI TXIKIEN

arima



Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

Garai berrietarako
ideia berriak

ibai ondo

barne diseinua
dekorazioa

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
943 88 22 51
Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

BERTSOTAN



Patxi Iraola

Hirurogeita hamaika
hirugarren hila
eta esker mila
ondo gogoan daukat
han ginan kuadrila
sei lagun asmo biziz
txapelaren bila.
Nik eman omen nuen
goreneko maila
hala erabaki zen
nahiz sinisten zaila.

Osinalde saria

Luzio, Eusebio,
Agirre benetan
nor bere lanetan,
Murua geroago
laguntzeko setan,
zenbat lan egin duten
hor urte luzetan.
Gabirin probatuak
lenengo fasetan
bertsolari on asko
dabiltza plazetan.

Doinua: esnesaltzailearena

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424
647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Dionisio Amundarain

6. Errezeta: Mariskoz betetako
piperrak
Aholkua: Haurren loa

8. Kate motzean: Josu Aldasoro

9. Erreportajea: Eskola txikiak

14. Erreportajea: Lore eta landareak

18. Elkarrizketa: Dioni Galparsoro,
Mikel Gaztañaga eta Aitor Perez
txirrindulariak

22. Gazteleku: Ordiziako gaztetxeak
19 urte

24. Debaldeko iragarkiak

26. Argazki zaharra



Goierritarra Goierritz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro
Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Aitzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia



Dionisio Amundarain

Aukera guztiak

nork ez du justizia aldarrikatzen, ez auzitegietan zuzenbidea jokatzeko; faltsukeriaz fidatzen dira, gezurrezko aitortpenak egiten dituzte. Okerra sortzen dute barruan, gaiztakeria ematen fruitu”.

Ez dira nire hitzak, ez, nahiz eta neu-re egiten ditudan. Ez dira gaur egungoak ere, nahiz eta egun-egungotzat jotzen ditudan. Ba al dakizu, irakurle, nondik hartu ditudan? Ba, Bibliatik, Hirugarren Isaias profetaren liburutik (Is 59,4).

Aukera Guztiak-en sustatzaileon gazi-gozaak

Kasik hobe garraztasun-poztasunak esatea. Garraztasuna: batetik, euskal jendetza handi bati –BATASUNari, zehatz esanda– oinarri-oinarriko eskubideak –aukeratua eta hautesle izatea– ukatu izana sakonago egiaztatu beharra izan genuelako; bestetik, Euskal Herria haur mukizu izango balitz bezala, sakoneko erreferentetzat botere espainola kontuan hartu behar izan genuelako. Zer dela-eta egon behar du herri batek beste baten mende? Poztasuna: batetik, gure deia darra herri handi eta adoretu bati egiten ari ginelako; bestetik, herri horrek kementsu erantzun zigulako.

Atzerritar boterea Aukera Guztiak ito nahian

Ez da oraingoxea. Aspaldikoa du botere espainolak nahi hori. Itxurak itxura, aurpegierak aurpegiera, esne-behi oparoa du Madrilen Euskal Herria. Nola joaten utzi? Nola galtzen utzi horrelako altxorra? Aspaldi hartan faraoiarena oso gogoan dute: “Bitartean, israeldarrek ihes egin zutela Egiptoko erregeari jakinarazi ziotenean, faraoiak eta funtzionarioek... elkarri ziotzaten: “Baina zer egin dugu? Nola utzi diegu geure esklabo israeldarrei alde egi-ten?” (Biblia, Irteera liburua 14,5).

Eta lege-itxurak egiteko, Auzitegi Go-rena eta Konstituzio Auzitegia etab. Aukera Guztiak lege kanpoko omen. Izatekotan ere, berek egindako legearen kontrakoa.

Garaipen pirrikoa

Pirro (K.a. 318-272) Epiroko (gaur egungo Grazian) errege izan zen. Erromaren aurka garaipen handia lortu zuen, baina galera handia jasanez, galtzaileak baino handiagoa, alegia. Soldadu on asko galdu zuen. Garaipenagatik norbaitek zorionak eman zizkionean, hau esan bide zuen: “Horrelako beste garaipen bat eta soldadu bakar bat gabe itzuliko naiz Epiroa”.

Gaur goizean (apirilaren 1ean) Konstituzio Auzitegiarena entzutean, horixe otu zait: Espainiako boterearen garaipen pirrikoa.

2005eko martxoaren 1ean baino gehiago gara, kopuruz eta indarrez. Zer esanik ez: duela 25 urte baino gehiago, ausardiaz eta adoretz. Eta badakite hori. Ondo asko jakin ere. Baina ezin etsi dute. Azkeneraino.

Herri bat ez da galtzen hain erraz. Elkarri eskua emanez lanean ari bada. Elkarri eskua emanez bizi bada. Aukera Guztiak zanpatu dute, formalki, baina ez mugimendu horren hatsa.

Eta orain zer?

Bat. Jende askok txalotu zuen Bush Irakeren askatzaile bezala joan izana. Plazaratu nahi ez badute ere, beren baitan aitortu dute jadanik, agian, zoro jokatu zutela. Bada gurean ere horrelakorik oraino: Euskal Herriaren geroa Madrilen esku dagoe-la uste duenik. (Idazteko toki gehiago eman balidate, gustatuko zitzaidan puntu hau garatzea). Erronka handia daukagu jende hori konbentziazten.

Bi. Begiak hurbil-hurbilera botata, bota Aukera Guztiak-i edota gure gogoko-ari ezin emana izateagatik senti dezakegun tripako mina eta guzti, estutu ditzagun eskuak beren erroak Madrilen ditzuten alderdi politikoen aurrean. Luze baino lehen damutu beharrik ez izateko. Salba dezagun gutxieneko bat. Funtsezkoena, esan nahi dut, horren gainean eraiki eta eraiki jarraitzeko.

Hemendik 25 urtera, 2030ean, gure ondorengoei, erreferentetzat Espainiako boterea hartu beharrik izan gabe, esateko modua izango ahal dute 2005ean baino askoz gehiago direla!

*Herri bat ez da galtzen bain erraz.
Elkarri eskua emanez lanean ari bada.
Elkarri eskua emanez bizi bada.*

Abiadura Handiko Trenari ez

Landarlan elkarteak tren sozialaren alde

2004ko urriaren 28 eta 29n Bilbaon ospatutako erabilgarritasun sozialeko etorkizunerako trenbide sarearen inguruko eztabaida eta hausnarketa jardunaldian iritsi ziren ondorioekin Landarlan Elkarreka bat egiten du.

Ondorioak

1. Premiazkoa da Euskal Herriko Trenbide sarearen gainean lan egitea, erabilgarritasuna ardatz duen sarea izan dadin.

2. Trenbide sare sozial batek hurrengo baldintzak bete behar ditu:

- Garraiobide erabilgarria eta ahalik eta pertsona gehienentzako eroso izan behar da. Bidai horiek, egun, lokalak edo eskualdekoak direla eta izaten jarraituko dutela ozenki adieraziz.

- Garraiatu behar diren merkantziarentzako garraiobide erabilgarria eta egokia izan behar da.

- Trenbide arloan aurrea eramaten den edozein erabaketan (mantenu-lanak, bikoizketak...) kalte sozialak, ekonomikoak eta inguruarekikoak minimizatuz.

- Beste garraio mota publikoekin modu erabilgarrian integratu.

- Intermodalitatea erraztu; bai trena eta bizikletaren artean; baita ere mugikortasun mugatua daukaten pertsonekin, bagoi eta estazioetara beraien sarrera egoki eta ziurra bermatuz.

- Bidaiariak garraio pri-

batuetatik publikoetara eramatea lortzea.

- Bai pertsonen eta bai merkantzien mugikortasunaren igoera aurreikustea.

3. Helburu honi atxikiz, Euskal Herriko Administrazioei gizartearen partehartzea kontuan izango lukeen plan integral eta bateratu bat burutzea eskatzen diegu. Konkretuki, Euskal Herriko trenbide sarea eta orokorrean garraiobide guztien diseinatzea. Euskal lurralde guztientzako mahai instituzional bat eratzea aldarrikatzen dugu, garraio azpiegituren plangintza koordinatu bat definitzeko helburuarekin. Euskal Herriko erakunde publikoek, garraio arloan eta bereziki trenaren arloan, honek hiritarrekiko eduki behar lukeen egokitasunaren ardura-dun zuzenak dira.

- Motordun ibilgailuen mugikortasunak, ingurugiroan, ekonomian eta gizartearen sortarazten dituen kalteak kontutan izanik, hiritarrak mota honetako bidaiak murriztu eta egokitu behar dituztela kontzientziatuz.

- Beharrezkoak diren bidaietan, trenaren erabilpenaren garrantziaz kontzientziatuz.

4. Jardunaldietan, eta 1. eta 3. puntuak adierazten duten legez, Abiadura Handiko Trena, gure gizartearentzako trenbide sozial eredu gisa, ez dela egokiena ondorioztatu daiteke. Eta proiektua bultzatzerakoan, erakundeak, gizarte, ingu-

rugiro eta ekonomia iraunkorraren alde egindako hainbat adierazpenekin kontraesanean dihardu. Europako hainbat lekutan eragile sozial ezberdinak eta erakundeak ondorio beretsuak ateratzen ari dira.

5. Euskal Herriarentzako trenbide sare egokiena zein den erabakitzea, beharrezkoa den informazioa aztertu eta herritarrei dagokie erabakitzea. Euskal Herriko erakunde publikoek ez dute eztabaida errazten. Hau agerian geratu da, erakundeek bultzatuta, EAEko komunikabide publikoetan euskal "Y" proiektuaren alde egindako zeharkako publizitatearekin. Eragile ezberdinek informazioa eskatzen egin dituzten hainbat galderei erantzun garbirik ere ez zaie eman eta jardunaldietako mahai inguruan egindako adierazpenak ere norabide hori jarraitu dute.

6. Ezinbestekoa eta premiazkoa da eskuduntza duten erakundeek AHT proiektuaren tramitazioa geldiaraz dezatela eta orain arte egin ez den gizarte eztabaida gauzatzea. Eztabaida trenbide sareri buruz izan behar da eta ez AHTri buruz; azken hau trenbide sozial eredu gisa, guztiz deuseztatua dagoelako.

7. Deialdi bat egiten diegu Euskal Herriko eragile sozialei, sindikalei, zein politikoei, Erabilgarritasun sozialeko trenbide sarea diseinatzeko lagungarriak izan ahal diren hitzaldiak, manifestazioak, eztabaidak eta abar antolatuz.


JAKIN BEHARREKOAK

Berotegi-efektuko gasak zerbait gutxitu dira Europan. Europako Ingurumen Agentziak argitaratutako azken datuen arabera, 2002an lehen baino berotegi-efektuko gas gutxiago isuri zuten Europako herrialde industrializatuek. Aurreko urteetan gorantz egin zuten isuriek, baina 2001-2002 epean % 0'5 jaitsi zen gas horien emisioa. Eguraldi beroaren ondorioz etxebizitza eta bulegoen berokuntzarako erregai fosilak gutxiago erabiltzea, hazkunde ekonomiko motelagoa, ikatzaren ordez gas naturala erabiltzea eta negutegi efektua eragiten duten gasen emisioak gutxitzeko hartutako neurriak dira, jeitsiera horren arrazoiak. Nolanahi ere, Europa urruti dago oraindik Kyotoko protokoloak agindutako helburuetatik. Are urrutiago dago Espainia eta horren barne Euskadi, Espainiak % 15 gas gehiago isurtzeko baimenduta bazegoen, % 33a isuri du eta Euskadik % 28a.

Goi-tentsioko hariak eta leuzemia erlazionaturik:

Halaxe azaldu du Britainia Handiko Osasun sistemak aginduriko ikerketa batek, Oxfordeko Unibertsitateak egina. Ikerketa horretan goi-tentsioko harietatik 100 metro baino gutxira bizi ziren 15 urte azpiko 70.000 haur ikertu dira. Ikerketa horren arabera, goi tentsioko harietatik gertu bizi diren haurrek beste haurrek baino bi aldiz aukera gehiago dute leuzemiaz gaixotzeko.

Baserria jarduera ekonomikoa izatetik haratago doa



Goierriko Landa Garapen Programaren 3. helburu eta ildo estrategikoak honela dio: Baserria mantendu eta garatu landa eremuen jasagarritasunaren giltzarritzako eragile bezala.

Nekazariaren jarduera, erabiltzen duen lur sailen hedadura zabalagatik eta bere funtzioaniztasuna dela eta, eskualdeko landa inguruneen mantenuan eragile garrantzitsua da. Funtzioaniztasuna mantentzeko ordea, baserriarren inplikazioa ez da aski. Gizarte osoa inplikatu behar da. Tamalez, errealtate hau ez dago nahi beste barneratuta gizartearen.

Urrutiko elikagaien menpe

Pasa den mendean zehar gizarte osoaren joera, nola edo hala, janari merkeagoa lortzea izan da: Kanpotik janaria ekarri, baserriarrak produkzioa gehitzera bultzatuz... Mundu osoan, urrutiko elikagai iturrien menpe gaude gero eta gehiago. 1961eko datuekin konparatuta, azken 40 urteotan, elikagaien nazioarteko merkataritza hirukoiztu eta nazioarte mailan garraiatutako elikagaien kopurua laukoiztu egin dira, populazioa bikoiztu soilik egin bada ere. Handitze horretan eragina izan dute elikagaiak prozesatze arloko berrikuntzek, petrolioaren prezio merkeak eta zenbait laborek dituzten dirulaguntzek. Ameriketako Estatu Batuetan, elikagaiek 2.500 eta 4.000 kilometro bitartean bidaiatzen dute baserriatik platerera iristeko, 1980an baino %25 gehiago. Erresuma Batuan, berriaz, elikagaiek duela bi hamar-

kada baino %50 gehiago bidaiatzen dute.

Zenbaitentzat, distantzia luzeko elikagai sistemak aurrekaririk eta parekorik gabeko aukera eskaintzen du. Baina sistema horrek baditu bere alde txarrak ere; esate baterako, tokiko sukaldaritza, espezieak eta nekazaritza alde batera uzten ditu, petrolio kantitate itzelak gastatzen ditu eta negutegi efektua eragiten dituzten gasak isurtzen ditu. Bestalde, elikagaiekin lotutako aurrez aurreko harremanek ematen duten atsegina eta zer jaten ari garen jakiteak ematen duen ziurtasuna ere hondatzen ditu.

Bertako produktuak

Gure eskualdean astero, astero periak egiten dira herri ezberdinetan (Ordizian, Beasainen, Lazkaon...) Peri hauetan baserriarrek sasoi bakoitzeko produktu berezkoak eskaintzen dizkigute, baratzetatik atera berriak eta; azken finean, elikadura sano eta orekatuaren garrantia hoberena ematen dute. Bertako produktuak kontsumitu ahal izateko aukera paregabegorik ez dago. Herrietako zenbait komertzioetan ere salgai topa ditzazkegu gainera produktuak.

Tokiko elikagaien aldeko mugimendu berri baina indartsuak ere sortu dira zorionez, sukaldariak, erosle arduratsuak...

Baserriaren egoera

Baserriaren egoera ordea ez da oso baikorra: egunetik egunera baserriar gutxiago gelditzen da, zenbait herri-tan baserria desagertzeko arrisku bizian dago gainera. Egoera honen eragile ba-

tzuk aipatzearren, honako hauek azalduko ditugu:

- Lurraren galera geldiezin da: azpiegitura erraldoien garapenaren ondorioz porlanak lurra desagerrarazten du eta ustiatzearen desagerpena eragiten dute.
- Oso gazte gutxi kontsideratzen dute baserria beren garapen pertsonal eta profesionala aukera bezala.
- Gizarte hiritarren urruntasuna, axolagabekeria eta konpromiso eza nekazaritza-erakiko.

Baserria gainera diru publikoaren gero eta menpekoagoa dago, ez dira laguntzak jasotzen dituzten bakarrik baina bide horretaz dependentzia oso arriskutsua izan daiteke etorkizuneko. Adibide modura, duela hamar urte laguntzak errenta osoaren %4 ziren eta gaur egun %30 inguru.

Baserria, Agenda 21 foroetako gai kezkarrietako bat

Eskualdeko herrietan martxan diren foroetan (Altzaia, Itsasondo, Arama, Zaldibia...) baserriaren egoerari buruzko kezka agertzen da denetan. Honako hauek dira bilera hauetan jaso diren esaldietako batzuk:

"Baserriarrak abandonatuta sentitzen gara", "Dena utzita dago", "Baserriak hutsik geratzen ari dira, honek dena sasiz eta pinudiz betetzea dakar.", "Errepideak ez dira zaintzen, gutxi batzuk aritzen dira auzolanean eta beti berdina", "Ehize garaian kotxe ugari ibiltzen dira errepide hauetan", "baserriarekin ez dago zer eginik", "nahikoa lan daukate ingurugiro agiriak"

LABURRAK:

Landa ingurumenaren garapenerako 10/1998 legea apirilaren 8koa

"Euskal landa inguruak ekarpen garrantzitsu eta funtzioaniztak egiten dizkio gizarte osoari, kalitate oneko eta nortasun handiko elikagai zein lehengai osasungarriak ekoizten baititu, eta espazioaren kudeatzailea eta natur baliabideen, bioaniztasunaren eta paisajeen administrazioa baita."

gainera exigitzeko", "ahal dutena egiten ari dira etxe ingurua garbi mantentzeko", "Industriaren birmoldaketa eman zenean inork ez zuen sinisten. Antzeko zerbait egin behar da orain nekazal lurrekin", "Hemen dena pribatua da. Dena Ordenatu beharko litzateke plan edo egitasmo baten bitartez"...

Baserria eta azken finean nekazal, abeltzaintza eta basogintza jarduerak zuzenean erlaziozaturik daude paisaiaren egiturarekin eta Goierriko duen ondareetako bat da **paisaia**.

Nork ez du gustoko herri-guneak utzi eta gure inguruko landa eremuetara joatea? Lasaitasun bila, kirola egitera, naturaz gozatzera... Denontzako erakar-garriak dira bertan dauden zelai berdeak, baina nork mantentzen ditu?

Eskualde mailako arazo baten aurrean gaude eta goierriar guztiok parte hartu beharko genuke arazo honi irtenbide bat bilatzen.

SUKALDEAN



Txaro Barral
Nazabal jatetxea
Zaldibia

Osagaiak:

- Pikillo piper gorriak
- Langostinoak
- Txaka
- Esnea
- Irina
- Gurina

Saltsarentzako

- Piper gorriak
- Tipula
- Ura

Mariskoz betetako piperrak

Batetik, otarrainxkak edo langostinoak egosi. Bestetik, bexamel fina egin, eta ondoren, langostino eta txakarekin nahastu. Masa hoztutakoan piperrak bete.

Saltsa egiteko, kazuela batean tipula jarri. Oso gutxi gorritu. Piperrak, gatza eta ura gehitu eta egiten

utzi. Ondoren batidorarekin pasatu.

Zerbitzatzeko saltsa azpian jarri eta gainean piper beteak.

Haurren loaldia

Ba al zenekien loa egiten ikasi egiten dela? Burmuinaren heldutasuna ez da gertatzen bat batean. Sei hilabete arte alde handia dago pertsona heldu bat eta haurtxo baten artean. Beraz, denbora bat eman behar zaio loa normaldu dadin.

Loaren heldutasun prozesua ez oztopatzeko, komeni da jakitea haurtxoen loaldia eta helduona ez dela berdina. Loaldia fase desberdinetatik pasatzen da, REM izeneko fase batetik (lo arina, ametsak egiten diren momentua) EZ REM fase batera pasatzen da (lo sakonagoa, ametsik gabekoa). Fase hauek ziklikoki tartekatzen joaten dira. Helduok EZ REM fase hasten dugu gure loaldia eta haurtxoak berriz, REM fase hasten.

Bestalde, helduok poliki-poliki pasatzen gara fase batetik bestera. Haurtxoak berriz, ez. Horregatik helduok tirada batean egiten dugu lo gau guztian eta haurtxoak, behin eta berriz esnatzen dira.

Hau dena kontutan hartuta, helduok egiten ditugun zenbait akats ekidin ditzakegu.

Gurasok pentsatzen dugu, haurtxoa esnatzen bada gosea duelako izango dela. Holakoetan, amak titia ematen badio, bere aprendizaiak oztopatu besterik ez dugu egingo. Elikatzen badugu, loaren fase batetik bestera pasatze hori etengo dugu. Beraz, hobe da pixka bat itxarotea. Haurrak berehala hartuko du lo.

Batzuetan helduon be-soetan hartzen du lo eta pentsatzen dugu, hamabost minutu pasa eta gero, sakonki hartu duela lo baina ez dezagun ahaztu haurtxoa REM fase (lo arina) hasten duela loaldia eta posizioz aldatzean errazago esnatzen lagunduko diogula. Beraz, hoberena da haurtxoa toki berdinean uztea lotan. Esnatzen bada hartuko du lo berriro.

Bigarren hilabetearen hasieran, gaueko loaldia luzatzen hasten denean, arratsalde aldera haurrek negar krisialdiak izaten dituzte. Krisialdi horiek burmuineko kilikadurarekin (excitación) zerikusia dute, gaua eta egunaren tartekatze horri egokitzen hasterakoan, eta ez berriz gosearekin. Kri-



Beasaingo Andramendi Ikastolako haurtzaindegia
www.andramendi.com

sialdi horiek ez dira konpontzen titia edo mimoak ematen.

Zer egin haurrek lotara joan nahi ez dutenean?

Batzuetan sei edo zazpi urterekin gertatzen da eta beste batzuetan bi edo hiru urterekin.


Zer egin? Oso garrantzitsua da era metodiko batean jokatzeko. Lehendabizi geuk ezarriko dugu lotara joateko ordua. Ohera eramango dugu eta hamar bat minutu egongo gara berarekin, hitz egin, entzun, ipuin bat kontatu. Gero joan egingo gara. Haurra jaitzen bada, lehenengo aldian amak eraman badu ohera, oraingoan aitak eramango du, haserretu gabe. Honela haurra konturatuko da bai amak eta bai aitak berdin pentsatzen dutela. Berriro azaltzen bada, hasieran ez ikusiarena egingo dugu, ea lotara joaten den,

baina berak atentzioa eman nahi badu, orduan ohera eramango dugu baina oraingoan gure haserrea azalduko diogu. Ez gara geldituko hitz egiten eta denbora pasatzen berarekin.

Oso garrantzitsua! Beti gauza bera egingo dugu, hau da, gure humorearen arabera ez gara hasiko aldatzen, egun batean oso haserre jarriaz eta beste egun batean berarekin jolastuz.

Beraz, hasieran ez gara haserretuko, bestela pentsatuko du lotara joatea zigor bat bezala dela. Lotara deskantsatzen joaten da eta plazer hortaz disfrutatzen erakutsi behar diogu.

Batzuetan haurrak larritasunez esnatzen dira gauaren erdian. Izan daiteke amets gaizto bat egin duela. Guk egin behar duguna da haurra lasaitu. Normalean hiru urtetik aurrera ez da hau gertatzen.



“Artaldean eta artzain-taldean kanpoko txakurrak bazterrak nahastera sartzeak sutzen nau”

Artzain izateko bokazioa behar al da?

Zalantzarik ez. Gaur egun, nekazaritzan edozein alorretan aritzeko bokazio handia behar da.

Zerk zailtzen du artzaintza?

Lanbidearen berezko zailtasunak gainditzeko prestatuak gaude artzainok. Baina, lanbidez kanpoko faktoreek gogortzen dute benetan artzaintza. Museoko pieza bagina legez tratatzen gaituzten zenbait agintarik bereziki.

Gaztaren inguruan ekitaldi ugari antolatzen da. Artzainaren lekua zein da?

Erretratukoa. Artzain egunetan, gazta lehiaketetan, artzain txakur lehiaketetan... Guztietan azalduko da artzaina bere txakurrekin, gazta sorta paregabe bat edo artalde zoragarririk bat propaganda karteletan. Baina, helburua ia guztiek berdina dute, ekitaldi jendetsuak antolatzea. Eta gu erakargarri garenez, hantxe gaude, erretratuan.

Ardientzat bazkarik onena nongoa da?

Azkeneko bi urteak ez dira bikainak izan, baina, dudarik gabe Aralarrekoa da bazkarik finena eta onena.

Aralarreko txabola ala herriko artegia?

Aralarren gaudenean lasaixeago egoteko aukera izaten dugu. Baina, bai ardiak, baita artzainak ere biak ditu beharrezko. Beraz, uda Aralarren eta negua herriko artegian.

Txakurra, laguna ala lankidea?

Biak, txakur ona lagun eta lankide ere bada.

Aurtengo negu gogor eta luzeak zein eragin izango du gaztagintzan?

Nabarmenenena etekin murrizketa, izan ere, gastuak asko igo dira eta horrek zuzeneko eragina izango du.

Gazta berria ala zaharra?

Gazta ona bada, biak ditut gogoko. Garrantzitsuena garaian garaikoa izatea da. Nekazaritza estentsiboa bultzatu behar da eta horrek uniformetasuna hausten du.

Artzainarentzat garairik politena?

Ederra da ardia arkumea miazkatzen ikustea. Ardiak jetzi eta gazta ederrak ditugula ikustea. Udaberrian familiak launduta mendira igotzea. Udazkeneko Aralarreko egunsentia. Gazta oso ona dagoela bezeroei entzutea. GOIERRITARRAN eta Goierriko Hitzan, hamaika artzainen propaganda ikustea. (Norbaiti zer pentsatua eman beharko lioke horrek. Eta Goierri hamaika baino gehiago era bagara). GOIERRITARRAKOAK artzaintzaz akordatzaren direla ikustea... Gauza polit hauengatik ez balitz, ez legoke artzainik.

Zerk sutzen zaitu?

Artaldean eta artzain-taldean kanpoko txakurrak bazterrak nahastera sartzeak.

Zerk sortzen dizu negarra?

Abiadura Handiko Trena izena duen burdinazko satorrak Aralar zeharkatu dezakeela pentsatzeak. Nola edo hala gelditu behar dugu.

Eta barrea?

Artzainok Aralarren luxuzko txaletetan oporrak ditugula entzuteak. 'Ezjakintasuna ausarta dela' esaten du erdal esaera batek.

Amets bat:

Euskal herritarra eta artzaina naiz. Beraz, Euskal Herrian aske eta duintasunez artzaintzatik bizi ahal izatea.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Zeraingo haurrak.

Eskola txikiak herri txikien arima

Gabiria, Olaberria eta Zeraingo eskola txikiak elkarlanean ari dira lanean, maiatzaren 22an Olaberrian egingo duten Goierriko Eskola Txikien Eguna antolatzen. Elkarla-

na dena den, festa baino haruntzago doa. Gurasoek, eskola txikien aldarrikapena egin nahi dute, euren txikitasunean, handi direlako. Beraiek dira herri txikien arima.



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

txekin

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07
943 88 70 48
Faxa: 943 88 28 01

car.osinalde@terra.es
Igara industrialdea, z/g
ORMAIZTEGI

Eskola txikia, mila biztanle-
tik beherako herrietako es-
kolak dira. Horrekin batera
beste bi baldintza ere bete
dituzte: eskolako 60 ikasle
(bataz beste) eta eskolan 7
unitate baino gutxiago iza-
tea.

Eskola Txikiak herri txi-
kien arima dira. "Ez da herri
txiki bat bizirik ulertzen es-
kolarik gabe. Haurrik ez da-
goen herria itzalita dago,
baina herri txikietan hau-
rrak izateko, beharrezkoa
da gizarte antolatu batean
dagoen zerbitzurik funtsez-
koenetako bat edukitzea:
heziketa gunea, hau da, Es-
kola Txikia. Beharrezkoak
dira Eskola Txikia, belau-
naldi-erreleboa emango ba-
da, ezinbestekoa da hauen
seme-alabek beren lehen
heziketa mailak etxetik ger-
tu eta duintasun osoz egin
ahal izatea", horrela diote
Gabiria, Olaberria eta Ze-
raingo eskolako ordezkari
diren gurasoek.

Olaberriko eskolako gu-
rasoa den Jon Zubiarriainek
adibide bat jarri digu horren
erakusle: "nire adinekook
adibidez, ez dugu herritar-
ren arteko harremanik
izan, eskolara herritik kan-
pora joan izan garelako.
Olaberri herri kontzien-
tzia galdua dago, haur as-
ko, Beasaina, Lazkaora edo
Ordiziara joaten baitziren."

Eskola txikien arteko
harremanak sendotuz, elka-
rren arteko proiektuak gara-
tuz ari dira irakasleak eta
gurasoak. Eskola txikien be-



Olaberriako eskolako baurrak.

rezitasunak eta abantailak
gizarteratu nahi dituzte es-
kola txikietako gurasoek.

Txikitasunean handi

Eskolaren kalitateak bere
tamainarekin zerikusirik ez
daukala aldarrikatu dute

behin eta berriz.

Ikasle kopuru txikia eta
adin desberdinetako ikasle-
ak gela berean izatea da es-
kola txikien ezaugarrietari-
ko bat. Eskola txikietan
haur nagusienak gazteenei
erakusten diete, "eta gaiak

azaldu behar horrek edu-
kiak hobeto menderatzea
eskatzen dio ikasleari", dio-
te gurasoek.

Gabiriako Lierni Aran-
buruk dionez, "askori irudi-
tzen zaie, eskola txikia iza-
teagatik ez direla zerbitzu
berdinak eskaini behar.
Guk badakigu hori ez dela
horrela baina oso zabaldua
dagoen iritzia da". Jon Zu-
biarriain olaberriarrak gai-
neratu duenez, "askotan,
jendeak uste du txikia izate-
agatik, adibidez, ordenagai-
lurik ez daukagula. Eskola
berria ireki genuenean, he-
rritarrei ateak zabaldu ge-
nizkien eta harrituta gelditu

Haur gutxi izatea eta adin
ezberdinetakoak nahastuta egotea,
aberastasun handia da. Txikienek oso
egoera naturalean ikasten dute.



INSTALATZAILE OFIZIALA



Laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

© 943 02 73 58

Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5
BEASAIN

ziren, ordenadoreak ikusita”.

Gabiriako eskolako guraso den Pilare Mujikak ondokoa gehitu du: “adin berekoak izateak ez du esan nahi denok berdinak garenik. Denok ezberdinak gara. Eskola txikietan irakasleek badakite gela berean, maila ezberdinetako ikasleekin lan egiten. 6 urteko gela batean gai bat era homogeneo batean landu dezaketela pentsatu dezakete irakasleek, baina horretan, sakoneko errorea dago, ikasle guztiak ezberdinak direlako. Eskola txikietan, besteen babesean izugarri ikusten dute. Urte batean txikiak izango dira eta hurrengoan handiak. Haur gutxi daudelako eta adin ezberdinetakoak nahastuta egotea, aberastasun handia da. Txikiak oso egoera naturalean ikasten dute, konturatu gabe. Haur guztiak elkarrekin ibiltzen dira herriko plazan eta handienek txikiak zaintzen dituzte”. Pilare Mujikak gogoratu duenez, Donostian, Amara Berri sistema txertatu du Amara Berri ikastetxeak: “bi urte ezberdinetako ikasleak batera jartzen dituzte, nahita”.

Joxe Ramon Aranburu gabiriarrak gehitu duenez, “motel eta bizkorren arteko alderik ez dago. Motelagoari gehiago laguntzen zaio eta guztiak ateratzen dira aurrera. Herri txikietan ez dut ikusten haurren arteko ezberdintasunik”.

Txikiak izanagatik, handiek adinako zerbitzuak eskaintzen dituztela garbi utzi nahi izan dute gurasoek, nahiz eta eraikin bereziturik eta handirik ez izan, baina aldi berean, herriko azpie-

Goierriko Eskola Txikiak

Gipuzkoako Eskola Txikien sarean, Goierriko hiru eskola txiki daude sartuta: Gabiria, Olaberria eta Zeraingo. Itsasondokoa ere eskola txikia bada ere, elkarte edo sare horretatik kanpo dago.

Gabiria:

37 haur dabilta eta datozen 2 urterako 40 haur izatea aurreikusten da. Eskola berrantolatu beharrean daude, leku arazoak sortzen ari zaizkie eta. Hiru ikasgela dituzte eta datorren urterako laugarrena osatuko dute. 12 urtera arteko eskaintza du. Haur eskola edo haurtzaindegia ere badute. 6 irakasle ari dira; lau egun osoz eta bi egun erdiz. Jangela eta garraio zerbitzua dituzte; zaintza zerbitzua ere bai. Itsasoko 4 haur dabilta eta datorren ikasturtean bi gehiago joango dira.

Olaberria:

13 haur eta bi irakasle daude. Zaharrenak 5 urtekoak dira. Jangela eta garraio zerbitzua eskaintzen dituzte eta haurtzaindegia ireki nahian dabilta. Datorren urteari begira, zaintza zerbitzua ere jarri nahi dute, eskolako orduetatik kanporako, ordutegi malguarekin.

Aurtengo ikasturtean egoitza berria estreinatu dute herri kaskoan, Ihurreko eskolak utzita. “Gora igotze horrek guraso batzuk atzeratu egin ditu eta nahikoa



Gabiriako haurrak.

egoera kritikoan gelditu ginen. Baina aurtengo matrikulazioarekin eta datorren urteko aurreikuspenekin, egoera delikatu hori gaiztatu dugu”, dio Jon Zubiairrain gurasoak.

Zerain:

2008. urtean, berriz ireki zela, 25 urte beteko ditu Zeraingo eskolak. Aurretik, 10 urtez itxita egon zen. “Herrian hainbat gaztek herriari eusteko apustua egin zuten, eta eskola birstatu zuten, jakin gabe, zenbat urte iraungo ote zituen. Laster 25 urte beteko ditu eta egi-

ten den balorazioa pozik egoteko modukoa da”, dio Arantxa Larrinaga gurasoak. Irailean hamar urte beteko dira Guraso Elkarteak sortu zela.

Haur kopuruari dagokionean, 8-12 tarteetan ibili izan da. Duela zortzi urte bigarren irakaslea lortu zen, bi urteko gela sortu zenean. Jangela zerbitzua duela 3 urte hasi ziren eskaintzen, ordura arte ez zuten beharrik izan eta. Duela bi ikasturte haur eskola sortu zuten. 8 urtera arteko eskaintza du Zeraingo eskolak. Handik Segurara joaten dira.

Ikasteknik

psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztipoak
Diagnosis eta tratamendua

• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour
merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

giturak aprobetxatzen dituzte. Horri ere abantaila ikusten diete eskola txikietako gurasoek. "Eskola ez dago isolatua. Herriaren, plazaren parte da. Edozein gauza lantzeko erabiltzen dituzten ereduak, herrikoak, bertakoak dira. Herriarekiko lotura handia sortzen da".

Gabiriako eskolara Itsasoko lau ikasle joaten dira, taxian. Eskola txikiaren aldeko apustua egin dute hainbat gurasok. Pilare Mujikak zehaztu digunez, "gu sortzekotan ibili ginen baina ez zen kopururik lortu. Baina oso garbi geneukan, eredu horixe nahi genuela gure haurrentzat".

Gurasoen parte-hartzea

Eskola Txikietan gurasoen parte-hartzea behar-beharrezkoa dela adierazi dute Gabiria, Olaberria eta Zeraingo gurasoek. "Gurasoen parte hartzea zuzen-zuzena da. Oso aberatsa da eta gainera ezinbestekoa da", dio Arantxa Larrinagak. "Herria egiteko beste modu bat da", gaineratu du Jon Zubiarrainek. Pilare Mujikaren arabera, "horrelako eskola batean guraso bezala, parte hartzeko aukera guztiak dituzu, eta erraztasun handiago ere bai".

Olaberriin oraintxe dira sortzetan Guraso Elkartea berria. Kuttune izena jarri diote. "Izenak herriarekin lotura izatea nahi genuen.



Gabiria, Zeraín eta Olaberriako eskola txikietako haurren gurasoak

Goierriko Eskola Txikien festa maiatzaren 22an Olaberriin

Maiatzaren 22an festa egingo dute Zeraín, Gabiria eta Olaberriko eskola txikiek, Olaberriin. Aurreko egunean, hiru eskolako haurrak elkarrekin joango dira Zarautza, bi egun pasatzera. Hiru eskola txikien arteko harremana urtean zehar ere gauzatzen da. Goierriko Eskola Txikien elkarlanaren emaitza da Olaberriko festa. "Eskolaren batek zerbait antolatzen duenean, gainerakoak joaten gara ikustera", zehaztu dute.

Olaberriakoak sartu berriak dira eskola txikien arteko harreman horretan. Jon Zubiairain gurasoak azaldu digunez, "beste eskola txikien egoera ikusi eta ezagutu nahi izan genuen. Horrekin batera, herri mailan kanpainak egin, kontzientziatzeko, eta Goierriin beste eskola txiki batzuk ere badaudela adierazteko. Olaberriin, eskolaren aldeko apustu handiagoa egiten ari direnak, kanpotik etorritako familiak dira, herrian integratzeko aukera ikusten dutelako. Bertakoak direnak, berriz, kanpora joan dira. Datorren urtean herrikoak ere bertan geldituko dira".

2008an Gipuzkoako festa, Olaberriin

2008. urtean, Gipuzkoako Eskola Txikien festa egingo da Zerainen, bertakoa Eskolaren aldi berriaren 25. urteurrenean.

Olaberriin bada ohitura bat, ametsen kontrako kuttuna. Galtzeaz dagoen ohitura

da. Azken batean, herria piztu nahi dugu", zehaztu du Zubiarrainek. Gipuzkoa-

ko Eskola Txikien sarea sortuta dago, Guraso Elkartek protagonista direla.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa:
auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

ekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behe
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJAK

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Jakoba Errekondo, paisajista:

"Herri baten sarrerako errotondak adierazten du herri hori nolakoa den"



Udaberria iristearekin batera, Seguran, lora eta landare azoka izaten da. Aurten, bosgarren aldiz, apirilaren 10ean izango da zita. Jakoba Errekondo paisajistak, Asier Galdosekin batera, lorazaintzaren sekretutxoak azal-

duko ditu. Sekretutxoak bertaratzen direnentzat utzita, lorazaintzari eta lorazaintzaren kulturari buruz hitz egin dugu Jakoba Errekondorekin, gure artean, oso pixkanaka bada ere, zabalduz doan kulturaz.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

**Jendeak gero eta kontzientzia gehiago al du lorazaintza-
ren kultura zabaltzen ari
al da?**

Gaur egun lorazaintza aukera ere izugarria da. Garai batean, diru gutxi zegoenean, azeituna potetan jartzen genituen landareak baserrietan. Gaur egun gero eta gehiago baloratzen dira loreak eta landareak. Ikusi besterik ez dago Segurako azokak nolako arrakasta duen urtero. Landare asko saltzen da. Jendea jabetzen ari da landareetan eta loreetan aukera handia dagoela, ez clau de betiko hiru gauzak. Kanpora ateratzen de-
nean ikusi egiten ditu landareak eta ekarri egiten dute. Nik uste gero eta zaletasun handiagoa dagoela, bai balkoietan, lorategietan, etxe barruetan, bulegoetan, lantokietan... Azken haue-
tan ere, gero eta garrantzia gehiago ematen zaio itxurari eta inguruari. Garai batean bazirudien, lorategiak txaletetako kontua zela, edo hiri handietako kale nagusietakoa. Baina kultura hori zabaltzen ari da.

**Segurako bezalako azo-
kek laguntzen al dute kul-
tura sortzen?**

Bai. Aian adibidez, joan zen asteburuan, munduko landare berezien azoka egin zen. Nik uste gauza horiek guztiek lagundu egiten dutela. Hori bai, azoka sale-
rosketa toki soil bat bihurtzen baldin badugu, orduan ez. Baina horren inguruan ekintza zabalagoak antolatu daitezke. Gaur egun aukera asko clau de. Aurren bosgarren urtea izango du Segurako azokak eta berak esaten du arrakasta baduela. Momentu oso ona da horrelako azoka bat egiteko. Aurren gainera, zer esanik ez, aurren dena izoztu egin baita. Oso ondo saltzen da eta saltzaileek etorri egin nahi izaten dute Segurara.

Negu luzea eta gogorra



Joerak edo modak

Balkoietarako zein joera dago?

Ez dago moda jakin bat. Nik ikusten dudana da, gero eta landare klase gehiago clau dela ikusten direla. Adibidez, Seguran, urtero egiten da balkoi eta atari lehiaketa eta ikusten da betiko geraniotik aterata gaudela. Petuniak, surfiniak, esparragerak... gero eta aukera gehiago dator eta nik uste aukera hori ona dela. Koloreak eta formak, jende-
ari pentsatuarazi egiten dio eta horren arabera nola jarri. Horrek dakar, zein efektu lor nahi den pentsatzen jartzea, mantenimen-

duan pentsatzea... azken batean, dedikazio gehiago eskaintzea. Ez dago moda bat, baina azken urteetan asko sartu den landarea, surfinia da. Erresistentzia handia du, loraldi oparo eta luzeak ditu...

**Jendeak loredun landa-
reak nahi izaten al ditu?**

Bai, jendeak kolorea nahi du. Niri berdea asko gustatzen zait, esparragerak adibidez. Baina jendea kolore-
zale amorratua da. Koloreak etxeari balio erantsi bat ematen dio. Ni, nahastuzaleagoa naiz, koloreak, formak, neurriak, hostoaren testurak... askoz naturala-

joan dela esaten da.

Nik ez nuke esango luzea joan denik. Udaberriarekin batera ederki aldatu da eguraldia. Jendeak azkar ahazten du, baina urtearen hasierako lehen hamabost egunak oso epelak izan ziren. Niretzat negu oso normala joan da. Agian azken urteetan ez dugu horrelakorik ezagutu baina horrelakoa izan beharko luke ne-

guak, orain ikusten dugun naturaren leherketa hau gertatzeko. Bi hilabeteetan hotz handia egin du eta tarte horretan loratu beharreko guztia atzeratzen joan da eta orain dena batera dator. Horrek giro berezia ematen du.

Udaberri eta udarako mendietan erreserba onak egin dira. Horrek ondorio positiboak ekarriko ditu.

goa da nahasketa hori. Landare bakar batekin ere oso efektu politak lortzen dira. Garrantzitsuena da, jartzen den landarea ezagutzea eta ondo zaintzea.

Barruko loreetan ere gero eta aukera zabalagoa dago.

Aukera ikaragarria dago. Etxe barrua normalean klimatizatuta claukagu. Barru giro tropikalak sortzen ditugu, gutxi gora behera 20 graduan. Hori dela eta, oso landare bitxiak iristen dira lurralde tropikaletatik, azken batean beren bizitzako giroa imitatzen delako etxe batean. Aukera handia dago barruko landareetan. Harrigarria da etxeetan eta bulegoetan ikusten diren landareak, mundu tropikala oso zabala baita. Urtero berrikuntzak iristen dira. Negozio handia dago eta gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio.

**Urte asko daramazkizu irratian lorazaintza-
eta hitz egiten. Lorazaintza-
ren kultura eta kontzien-
tzia zabaltzeko tresna
izan al da?**

Dudarik gabe. Jendeak gero eta galdera zailagoak egiten ditu, landare ezberdinak aipatzen dira... Urtero merkatuan landare berri asko azaltzen dira eta jendeak horietaz galdetzen du. Jendea jantzen ari gara eta galderetan nabarmena da.

Belardiak, basoak... udaberrian aberastasun handia izango du. Garbi dago, garaian garaikoak asko laguntzen duela. Eguberrietako epeltasun haiek adibidez, ez ziren onak, maiatza bukaeran izotza egitea ona ez den bezala.

**Balkoietako loreei pasa-
da eman dio aurtengo ne-
guak.**

Azken urteetako neguetara



ohitu gara eta jendeak ahaztu egiten ditu negurako egin behar diren aurreikuspenak. Gero eta ohitura handiagoa dago edozein landara ekartzeko, gustatzen zaigulako. Horrelako neguak erakusten du hemengo landarea zein den eta zein ez den.

Lorazaintzaren kultura aipatu izan duzu behin eta berri. Beste leku batzuetan loreei geurean baino garrantzia handiagoa ematen zaio...

Bai, beste kultura klase bat da. Hemen gauzak aldatzen ari dira, baina ez azkarregi. Udaletxeetan ikusi besterik ez dago. Oraindik udaletxe askotan ez dira jabetu ere egiten lorategien garrantziaz. Nik beti esaten dut, herri baten sarrerako errotondak adierazten duela herri hori nolakoa den. Zer garrantzia ematen zaion txukuntasunari, irudiari... Batez ere, kanpotik datozen bisitariekin, baserriko produktuak saltzearekin bizi nahi badugu... eta badirudi Goierri horretara goazela, nik uste horri garrantzia handiagoa eman behar zaiola. Daukaten kostuagatik, ematen duen etekina gehiago da. Zeraingo kasuan, adibidez, dauden lorategiak ikusita, horrekin gelditzen da jendea.

Lorategia estetika baino zerbait gehiago al da?

Bai, dudarik gabe. Lorategia kontzeptu berria da euskal-

Belardian bildutako lore sorta

Inguruan ikusi duzuen lorategirik bereziena?

Nik Zeraingoa esan beharko nuke. Idiazabalen nik uste, asko aurreratu dutela denbora gutxian. Hemen inguruan, urte askotan Beasain da nabarmenena. Urte askotako emaitzak orain ari dira ikusten Beasainen. Euskal Herri mailan, Arrasate, Aiako jardin botanikoa, Urruñako Florenia, Baztango Bertiz, Bilboko Doña Kasil-da...

Oparitzeko lora bat:

Orain, momentu honetan, edozein belarditara joan eta bilduko nituzkeen loreekin egindako lore sorta. Orain aukera ikaragarria dago. Elorri beltz sorta baino gauza politagorik ez dago.

Zuhaitzik gustukoena:

Askok. Ni beti sagarrondo zalea izan naiz. Hemengo landare bat delako eta gure kulturari hain garrantzitsua izan den landare bat delako. Era berean, hainbeste jantzi gaituena eta munduan euskaldunok zerbaitek famatuak egin bagaitu, sagardoak egin gaituelako. Nik badaukat lotura berezi bat sagarrondoarekin. Nik egiten ditudan lorategi gehienetan, sagarrondoren bat jartzen dut. Oso bizia den zuhaitza da: hostoa ematen du, loraldi handia du, udazkenean frutua ematen du, hostoa gorritzen zaio...



Nik egiten ditudan lorategi gehienetan, sagarrondoren bat jartzen dut. Hemengo landarea da, gure kulturari oso garrantzitsua. Oso bizia den zuhaitza ere bada.

dunontzat. Ez daukagu hitzik 'jardin' esateko. Lorategia, asmatutako hitz bat da. Guretzat baratza da, 'huerta' eta 'jardin' zentzua duena. Beti egon izan baitira, loreak, barazkiak eta sendabekarrak baratzean elkarrekin. Hori bera, kontzeptu kultu-

ral oso garrantzitsua da. Gu aspaldi hasi ginen baratzeetan azak, piperrak, letxugak... jartzen. Beraz, hori litzateke, guk euskaldunok, egin beharko genukeen gure erako lorategi hori. Horrek berak adieraziko luke, Landatan egon edo Bartzel-



lonan egon, edo hemen egon, ez genukeela gauza bera ikusi beharko. Hau da, beste gauzetan bezala, etxeak edo basoak ezberdinak diren bezala, lorategiak ere ezberdinak egin beharko genituzke. Hor arazoa sortzen da, kopien kopia egiten hasten garenean. Lorategia, kultura, nortasuna da. Adibidez, sagarrak lorategi batean egoteak, asko esan nahi du. Palmerak beste esan nahi bat du.

Gero eta palmera gehiago ikusten da hemengo lorategietan.

Bai, palmerak euskaldunak dira, Euskal Herriko flora autoktonokoak dira. Gero beste gauza bat da, zein erabilpen ematen zaion. Baserri askoren aurrean palmerak ikus litezke. Hori ohitura bat da. Garai batean, etxe horretakoren bat Amerikara joan eta diruarekin itzultzen zenean, etxe aurrean palmera landatzen zuten, amerikarren bat zegoela adierazteko. Palmerak, beraz, zentzu kulturala du. Palmerak zentzu batean kanpokoak dira, baina geureganatu egin ditugu. Lorategia oso erraz lotu liteke ohiturekin, kulturarekin eta nortasunarekin. Horretarako, nahi izan behar da.

Euskal Herrian, lorategiaren kontzeptua berria dela diozu. Euskal lorategiak sortu beharko al genituzke?

Nik uste tokian tokikoak ez-

berdinak direla. Ez da berdina hemengo kultura eta Bizkaikoa, edo Zuberoakoa. Nik uste bakoitzak bere arrazoiak bilatu behar dituela, landareak aukeratzeko garaian. Askotan arrazoi estetiko soila izango da, beste batzuetan beste arrazoi batzuek egongo dira. Lorategiak funtzio ezberdin asko betetzen ditu, itzalak, berdeguneak... Lorategia ez da estetika bakarrik. Beste leku batzuetan, ezagutzen ez diren landareak inguratzen dituzte funtzioa ere izango luke. Gaur egun basora gutxiago joaten gara eta basoa geureganatu egin dezakegu. Lorategi botanikoak hor daude...

Urte batzuk badira, zenbait lorategietan azelgak eta azak ikusten hasi ginen.

Donostiako garai berdinean hasi ziren Beasainen eta Zerainen ere. Hor bada tekniko talde bat, eskola bat, horretan sartu dena. Hemendik aurrera hasi behariko dugu menta-belarrak ikusten... baserrietan galdu ditugun gauzak lorategietan azalduko dira. Belarretak adibidez, errotonda batzuetan jarri dira. Edo kupelak, trokeladorak... Legazpin, lorategietan, makinak azaltzea oso ondo iruditzen zait. Nortasun handiko elementuak dira. Nahia-gut Valentzian diseinutako iturri bat jartzea baino kupel bat ikustea. Tokian tokiko aukerak aprobetxatu behar dira. Bertako lorategi bat sortu egin behar da eta lorategi-sortzaileak behar dira. Lorezain bat ez da sortzailea, beste leku batzuetako lorazaintza imitatzen baldin badu.

Lore eta landareen udaberriko 5. azoka

Lore eta landare aukera zabala, apirilaren 10ean, Seguran

Bosgarren urtez jarraian, segurarrek, lore eta landareen udaberriko azoka antolatu dute. Aurreko urteetan baino beranduxeago, apirilaren 10ean izango da aurtengo lorazaleentzat zita. Jarraian duzue Segurako herriak prestatutako egitaraua:

10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala. Kriseilu txistulariak eta Koldo trikitixa eskolako ikasleak; lore eta landare erakusketa eta salmenta; eskualdeko artisautza eta produktuak.

11:30etan: Lorezaintzari buruzko ikuskizuna, Jakoba Errekondo eta Asier Galdosen eskutik.

18:30etan: Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazaan.



Ondoren: Buruhandiak.

Ikuskizuna

Oinarrizko ikastarotxoak emango dute Jakoba Erronkondok eta Asier Galdosek, goizeko 11,30etan. Zein lorontzi eta

lur mota erabili, ongariak, nola ureztatu, drenajea, landareak nola aukeratu, landareak multzoka nola jarri forma eta koloreen arabera... azalduko dituzte. Inguratzen diren galdera eta kezkei erantzuten ere ahaleginduko da bikotea.

Intsektuak eta biodibertsitatea erakusketa, Ardixarran




Apirilaren 24ra bitartean, 'Intsektuak eta biodibertsitatea' erakusketa ikusgai dago Ardixarra etxean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Gipuzkoako Entomologia Elkarteak antolatutako ikastaro ibiltaria da egunotan Seguran ikus litekeena. "Azalpen batzuen bidez, Euskal Herriko biodibertsitatearen eta intsektuen aniztasunaren arteko lotura estuaren ideia eman nahi da, bizidun mota horiek erakutsiz", diote antolatzaileek.



kutxa

gizarte ekintza



Dioni Galparsoro Aitor Perez Mikel gaztañaga

UCI Pro Tour maila sortu ondoren, aldaketa nabariak izan dira txirrindularitza profesionalean. Txirrindulari goierritarrek ere, talde aldaketak direla eta, berrikuntzaz beteriko negua izan dute aurtengoa. Dioni Galparsorok aurreko bi urtetan bezala Euskaltelen jarraitzeko aukera bazuen ere, nahiago izan du sortu berri den Kaiku taldean izatea. Aitor Perezek eta Mikel Gaztañagak, be-

rriz, profesional izateko aukera eman zien Baque taldea bat-batean desagertzen ikusi zuten pasa den neguan. Ondoren talde desberdinen ateak jotzen hasi behar izan zuten. Azkenik, Aitorrek Extremadurako Spiuk taldean izan du lekua eta Mikel Kataluniako Angel Mir taldean. Aitor Perezek, gainera, denboraldi hasiera bikaina egin du, lasterketa bat irabazi eta bi bira bigarren postuan bukatuz.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Azken aldiz GOIERRITARARRAN elkarrizketa egin genizuenean, profesionaletara igotzeko esperantzarekin zeundeten. Ordura arteko zita egin genuen eta hemen gaude. Behin profesionaletara igota, espero al zenutena aurkitu al duzue?

Galparsoro: Nik agian, Mikelék eta Aitorrek baino zorte hobea izan dut, Euskalteira pasatu nintzelako. Bi urte egin ditut Euskaltelen. Afizionatueta, Espainia mailan, onetsuenak ginen eta profesionaletara igotakoan oso ondo egon behar zara aurrean ibiltzeko. Hori dena mailaren arabera doa eta orain hasi gara nabaritzen, hain ondo ez egonda ere, aurrerago ibiltzen gara. Maila batzuk pasatu behar dira, afizionatueta ere bai. Bakarrik, urte txarrak eduki ditugula.

Perez: Ez dira urte errazak izan. Ia jenderik ez zen pasatzen profesionaletara eta guri ere kosta egin zitzaigun.

Galparsoro: Hurrengo elkarrizketa beraz, hiruok talde berdinean gaudenerako zita jarriko dugu.

Negu mugitua izan duzue, hiruok ere taldez aldatu duzue. Nola bizi izan duzue hori dena?

Gaztañaga: Baqué taldean egin nuen iazko denboraldia, lehenengo urtea profesionaletan, eta taldea desa-



Dioni Galparsoro Martínez

Ataun, 1978

2 urte profesionaletan Euskaltelen, aurren Kaiku taldean



Mikel Gaztañaga Etxeberria

Itsasondo, 1979

Urte bat Baqué-n, aurren Angel Mir taldean



Aitor Perez Arrieta

Zegama, 1977

Urte bat Baqué-n, aurren Spiuk taldean

gertu egin zenez kalean gelditu nintzen. Batetik bestera ibili naiz talde bila. Angel Mir Kataluniako taldea aurkitu nuen azkenean, nahikoa berandu, eta taldea ateratzeko arazo dezenterekin gainera. Azkenean Mallorcan hasi ginen lehiatzen. Orain arte gutxi korritu dugu, baina, proiektua aurreraka doala ikusten da eta pixkanaka ea aurrera ateratzen garen.

Perez: Mikelen berdintsua izan zen nire kasua ere. Taldea aterako zela pentsatzen genuen, baina bukaeran ezustekoa eraman genuen, berandu zen eta zintzilik gelditu ginen. Ordurako talde gehienek taldea itxita zeukaten eta eskerrak aurren mailan berri bat sortu den eta talde kontinentalak atera diren. Tarteak aurkitu ditugu eta korritzen jarraitzen dugu.

Galparsoro: Euskaltekin sinatzekoa nintzen baina Kaiku talde berria sortu zen eta Oscar Guerrero zuzendaria oso ezaguna izan eta nigan konfiantza zuenez, Kaikura joatea erabaki nuen.

Talde berri bila zuek aritu behar izan al duzue?

Perez: Zuzendariék elkarren artean harremanak izaten dituzte eta horrek laguntzen du. Gu ere aritu

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82


aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA

TOLARE

URBITARTE


SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**



UCI Pro Tour, kontinental profesionala, kontinentala

Garai berria txirrindularitzan

Orain arte profesional eta afizionatu mailak bereizten ziren txirrindularitzan. Denboraldi honetatik aurrera UCI Pro Tour, kontinental profesionala, kontinentala eta afizionatuak dira dauden lau mailak. Pro Tour mailan munduko talde handienak daude, lasterketa garrantzitsuenetan parte hartuko dutenak: Euskaltel, Illes Balears, Liberty... Kontinental profesionalan egitura profesionala duten taldean daude Kaiku, Comunidad Valenciana, Relax... taldeak. Eta kontinental mailan egitura profesional naiz afizionatua duten taldeak daude, Spiuk, Angel Mir, Orbea...

Aldaketa hauek honela azaldu dizkigu Galparsorok: "Pro Tour champion league bezala da. Profesionalak dira eta azken batean diru gehiena daukatenak lasterketa horiek korritzen dituzte, aurreko urtean bezala. Iaz ez zeukan pro tour izen hori baina Relax, Baque, Kelme... eta horrelako taldeak ez ziren sekula kanpora ateratzen.

Orain izena aldatu diote eta denontzat nahasketa bat da. Kontua da, 20 talde sartzen direla lasterketa garrantzitsu horietan eta 20 horiek joan beharra daukate. Beste taldeentzat lekua bilatzeko oso zaila da. Iaz, Vuelta Españan adibidez, AG2R taldea etorri eta txirrindulari bakar batek bukatu zuen Vuelta. Baina aurrean ere etorriko dira Pro Tourrean daudelako". "Taldea batzuk etorri beharra daukate eta denboraldi amaiera denez, saturatuta, parregarri ibili daitezke. Eta badaude beste talde batzuk, izugarritzko gogorekin daudenak eta kanpogan geratu daitezkeenak", gehitu du Aitor Perezek.

Spiuk eta Angel Mir, nolabait esateko, ez dira talde erabat profesionalak. Profesionalekin korritu dezakete baina ez diete uzten karrera guztietan parte hartzen. "Oraindik beraiek ere ez dakite oso ondo, Uci Pro Tour oraintxe atera da eta", gehitu du Gaztañagak.

Aurtengo urtea, trantsi-

zio urtea izango dela esaten da. Galparsororen esanetan, Pro Tourreko txirrindulariak kontra daude. "Lau jauntxo daude eta dena kontrolpean eduki nahi dute. Nahiz eta talde bat ez ibili, lau urtean hor eduki nahi dute. Aldaketak egongo dira, jende guztiak eragozpenak besterik ez ditu ikusten-eta. Ekonomikoki abantaila handiak ekarriko zituela esaten zen, baina Banesto hasi da esaten, beraiek dirua gastatu besterik ez dutela egin".

Karrerak murriztuak ditzutenek, askotan ez da bakoitzaren maila erakusteko aukerarik izango. "Aukera badago, baina gure egutegia oso murriztua da eta karrerak aprobetxatu beharrean gaude", dio Aitorrek. Berak urte hasiera hau ederki aprobetxatu du punta-puntan ibiliz. "Bai. Karrera onenak orain dauzkagu, Pro Tourrekokin batera arituko gara eta. Saiatuko naiz aprobetxatzen. Komunikabideek ere arreta handiagoa eskaintzen dute".

gara zuzendariei deitzen.

Gaztañaga: Txirrindulari bakoitzetik aldatu egiten da. Dioniren kasuan, adibidez, aurretik erakutsia zuen bere maila eta ikusten zen talde batzuk bazeuzkala atzetik. Baina guk lehenengo urtea izan genuen iazkoa profesionaletan eta ezer asko egin gabe ibili ginenek, zailagoa da taldea bilatzea. Zuzendariak-eta hor daude baina ez da laguntza handirik izaten. Gure kasuan zorte pixka bat ere eduki dugu.

Zuk Aitor, denboraldi hasiera bikaina egin duzu. Portugalen etapa garaipena eta bi itzulitan 2. postua lortu. Illes Balears taldea ere atzetik ibili duzu. Bai, mugimenduren bat izan da. Baina Spiukekin sinatuta daukadan klausulagatik ez da posible izan.

Nolako izan da beste biontzat denboraldia hasiera?

Gaztañaga: Gure taldea berandu samar hasi da eta Mallorcan bakarrik parte hartu dugu. Guretzat orain hasten da denboraldia eta orain ikusiko dugu zer moduz hasten garen. Andaluzia aldean hasi behar nuen denboraldia baina gaixorik ibili nintzen eta oraindik ez naiz oso ondo aurkitu. Ea ondo entrenatzen hasten naizen.

Galparsoro: Taldea oso indartsu hasi da, denon ahotan dabil eta ea horrela jarraitzen dugun eta Euskal Herriko Itzuli ona ateratzen zaigun. Horrek ate asko irekiko dizkigu.

Horrelako negu mugitua edukita gelditzen al da aurrera egiteko gogorik?

Galparsoro: Guk azken batean, betikoa egiten dugu. Gu lagunak gara, denok elkartu eta oso ondo pasatzen dugu, ez daukagu kezkerik.

Perez: Ez zaigu askorik kostatzen entrenatzea. Bakarrik entrenatu beharra gogorragoa izango litzateke.

Beti eragiten du, ez baitakizu hurrengo urtean talderik izango duzun. Baina entrenatu egin behar da eta bat-bat bestearen animoekin aurrera egiten dugu.

Talde batetik bestera entrenatzeko moduak-eta aldatzen al dira?

Galparsoro: Askotan planifikazioak jartzen dituzte baina gu beti oso bereziak izan gara. Kilometro asko egin izan ditugu beti. Lasterketa konkretuen aurretik egiten ditugu entrenamendu bereziagoak baina bestela, 11etan Senpereko merkatalgunean gelditzen gara, eta hortik abiatzen gara. Gehienez, kostaldera joaten gara. Garai batean, beste txirrindulari batzuk, gu baino hobeak zirenak, esaten ziguten horrela sekula ez ginela txirrindulariak egingo. Gaur egun beraiek baino hobeto gabiltza.

Entrenamenduak non egiten dituzue?

Perez: Normalean kostaldera joaten gara. Andrazarra-etetik joan eta Mandubitik itzuli. Mendateetan edukitzen ditugu gure pike txikiak.

Gaztañaga: Askotan karre-ran baino gehiago sufritzen dugu entrenamenduetako portuetan.

Pelotoian nola moldatzen zarete?

Perez: Lasterketetan norberak bereari begiratu behar dio, baina ihesaldiren batean tokatuz gero, nahiago dugu beste norbaitek ira-



baztea baino, gutariko norbaitek irabaztea.

Gaztañaga: Pelotoian gertuko norbait alboan izatea

gustora hartzen da. Lasaia-gu ibiltzen da.

Txirrindularitzako izarren ondoan aritzea...

Askotan karreran baino gehiago sufritzen dugu entrenamenduetako portuetan.

Perez: Lehenengo karrere-tan, albora begiratu eta zen-bait txirrindulari ikusteak inpresioa egiten du. Baina ohitu egiten da.

Galparsoro: Valverderekin eta Mayorekin adibidez, afizionatueta ibilitakoak gara, denok ezagutzen gara. Ulrich, Amntrong... horiek ondoan ikustea bada zer-bait berezia.

Zuen ametsa zein da?

Perez Arrieta: Etapa gar-rantzitsuren bat irabaztea. Dena den, gure ametsa uste dut, ondo beteta dagoela, profesioaletara igota. He-mendik aurrera datorrena gustura hartuko dugu.

Aurtengo denboraldiko helburua:

Perez Arrieta: Ez ataska-tzea, progresio bat jarrai-tzea, eta gure izena entzu-ten jarraitzea.

Txirrindularitzaren egoe-ra nola ikusten duzue?
Dopina dela eta okerrera egin al du?

Galparsoro: Txirrindulari batzuen egoerak txarrera egin du. Aspalditik dopin-garekin daukagun pertseku-zioa ere hor dago. Txirrin-dularitzarekin itsutu dira. Txirrindulariok pasatzen di-tugu kontrol gehien eta po-sitibo gutxienak guk ema-ten ditugu. Urtero, agian, 20 kontrol pasatzen ditugu.

Perez: Zenbait komunika-bidek positibo kasuren bat azaltzen denean bakarrik eskaintzen die tarte txirrin-dularitzari. Nazka ematen du.

ZUZENKI
A H O L K U L A R I T Z A

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Udaberri Gaztea 2005

Beasainen

Aurten inoiz baino beranduago dator Beasaingo Udaleko Gazteria eta Kirolletako Sailak antolatzen duen Udaberri Gaztea. Herriko jaien atarian, apirilaren 30etik maiatzaren 2ra, gazteei zuzendutako hainbat ekitaldi izango da.

Gazteriak eta udaberriak lotura berezia dutela ikusita, Beasaingo Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak, gazteenzako egun bereziak antolatzen ditu. Aurten zortzigarren edizioa izango du Udaberri Gaztea. Gazteria sailleko Ander Telleriak gaineratu duenez, "Beasaingo Udalak Gazteriko azpiegitura indartsua ez daukanez, baliabideak puntualki landu egin dira alternatiba esberdinak eskainiz".

Aurreko urteetan bi asteburuetan antolatu izan dituzte ekitaldiak, baina aurten, "zubia eta hurrengo asteburuan Beasaingo jaiak direla aprobetxatuz, eszenatokiak, argindarreko tomak... aprobetxatuko ditugu".

Garagardo azoka eta Karts lehiaketa

Udaberri Gaztea 2005 ekitaldia beste bi ekitaldiren

bueltan prestatu da aurten. Batetik, apirilaren 28tik maiatzaren 1era BKL-k antolatzen duen garagardo azoka eta Olaberriko Karts-ean jokatu den Euskadiko Karts lehiaketa.

Gainerakoan, ohiko ekitaldiak izango dira: erakustaldiak, kontzertuak, tailerrak, jokoak... Azken bi ekintza hauek, irekiak izango dira eta ez dago aurrez izena eman beharrik.

Egitaraua

Apirilak 30, larunbata:

16:00etan: Joko irekiak, Bideluze plazan. Aerotrin, Jumping, Quad zirkuitoa...

19:00etan: Show akrobatikoa, Bideluze plazan: Narcis Roca.

22:30ean: Kontzertua, San Martin plazan: 'Spurium' eta 'Señor No'.

Maiatzak 1, igandea:

09:00etan: Kart lasterketa, Olaberriko zirkuitoan.

11:00etan: Shorinji Kempo erakustaldia, Antzizar kiroldegian.

16:30ean: Skate-Rollin-DJ festa, Antzizar kiroldegiko pilotalekuan.

Maiatzak 2, astelehena:

11:30ean: Gazte tailerrak San Martin plazan.



Ordiziako Gaztetxearen 19. urteurrena

Gaur, apirilak 8, hasi eta igandera bitartean, hainbat ekitaldi izango dira Ordiziako Gaztetxearen 19. urteurrena ospatzeko. Jarraian duzue prestatu duten egitaraua:

Apirilak 8, ostirala:

17:00etan: Umeekin jolasak, malabarak eta buruhandiak. **19:00etan:** Txupinazoa. **20:00etan:** Trikipoteoa moztorturik.

Apirilak 9, larunbata:

18:00etan: Burrunbada herrian zehar. **20:00etan:** Kontzertuak: Milkshake, Hell Beer Boys, Koma, Hamlet eta El ultimo ke zierre.

Apirilak 10, igandea:

Egun osoan: Argazki erakusketa Arboledan.

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N

- ✕ Jabeakideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zent. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Lore eta landareen udaberriko

5. AZOKA

Segura

2005.eko apirilaren 10ean

EGITARAUA

10etan, AZOKAREN IRIKIERA OFIZIALA

- Kriseilu txistulariak eta Koldo triki-tixa eskolako ikasleak
- Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- Eskualdeko artisautza eta produktuak

11:30etatik aurrera, IKUSKIZUNA plaza inguruan

- Lorezaintza, Jakoba Errekondo eta Asier Galdosen eskutik

Arratsaldeko 6:30etan

- Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan
- Ondoren, buruhandiak

ERAKUSKETA, Ardixarran

- Intsektuak eta biodibertsitatea
- Martxoaren 18tik apirilaren 24ra



ANTOLATZAILEAK:



SEGURAKO UDALA

AZOKA BATZORDEA
ETA HERRIKO ELKARTEAK

DEMOKRAZIA

BAKEA



BOZKATU EHAK

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasainen, futbol-zelai inguruan, etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera. 651705237 - 943162384.

Ligorretan, pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoi ederra. 13:30etik 14:30era deitu. 647586507.

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Guztiz berriua. Etxetresna eta altzariz hornitua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. 679617159.

Idiazabalen etxebizitza salgai. 91 m². 3 logela, 2 bainugela, sukalde ederra, egongela, ganbara eta garajea. Igogailua, leiho berriak eta berogailua. Bizitzen sartzeko moduan. 943187234.

Irunberrin (Nafarroa) etxebizitza salgai. Atikoa. 90 m². 3 logela, egongela tximiniarekin, sukaldea, bainugela eta terraza. 9438880386. Gauzez deitu.

errentan eman

Hendaian etxea alokatzen da, ekainetik irailera, asteka, hama-bosteka... 699511901 - 943027912.

errentan hartu

Beasainen edo inguruan pisua alokairuan behar da. 685711303.

Beasainen edo **Ordizian**, Goierriko langile bikote gazte batek pisua behar du alokeran. 605767917. Arratsaldez deitu.

LOGELA

errentan eman

Logela alokatzen da. 678781986. Arratsaldez deitu.

LURSAILA

erosi

Goierriin, herrigunetik kanpo, 2 Ha inguruko lursaila, zelaia, erosiko nuke. 696999128.

IBILGAILUAK

salgai

Renault Space salgai. 110 zaldi. Aire egokitua. Beti garajea egona. Egoera onean. 6.500 euro. 626063484.

Terrano 2700 sr salgai. Aire egokitua, abs, bola eta abar. 1998. urtekoa. 134.000 km. 629099478.

BMW 530 D salgai. 2001. urtekoa. Extrekin. Oso zaindua. 696268048.

Peugeot 306 TD salgai. SS-AT. Egoera onean. 635745894.

Suzuki BR 350 motorra salgai. Enduro, lau aldiko motorra. Dena berria. 649911320.

Gas gas enducros 250 motorra salgai. 2000. urtekoa. Matrikulatua. Oso egoera onean. 660040158.

Citroen Saxo 1.6 i salgai. 16 balbula, 120 zaldi. 5 urte. Egoera onean. Beti garajea egona. 630793199.

Opel Vectra 2.0i salgai. 117 zaldi. 5 atekoa. Aire egokitua eta engantxea. Oso egoera onean. Beti garajea egona. 676665382 - 943180173.

Scooterra salgai. 59 cc. 10.000 km. Ondo zaindua. Merkea. 666956883.

Suzuki RMX 50 motorra salgai. 2002. urtekoa. Oso egoera onean. 680799653.

Gas gas trial motorra salgai. 99. urtekoa. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 645007205.

Renault 5-a salgai. Egoera onean. 600 euro. 620256197.

Quad Honda TRX 300 salgai. Nahiko berria. 5.000 euro. 629468221.

Opel Astra familiarra, diesela, salgai. 665722354.

Enfardadora salgai, Batlle markakoa. 696999128. Asier.

Opel Kadett GSI 2.0 salgai. Egoera onean. 600 euro. 620868608.

GARAJEAK

errentan eman

Ormaiztegin, 24 m²ko garaje itxia alokatzen da. 609411811.

Ordiziako erdigunean garaje itxia alokatzen da. 635700556.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

LEIAR

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxe: 943 88 91 18
LAZKAO

BESTELAKOAK

erosi

Elektroestimulatzaila erosi-
siko nuke, bigarren eskukoa
(Compex edo antzekoa).
605744479.

salgai

Comanchje gurdi denda sal-
gai. Osagaiekin. Merkea.
943080081 - 615726430.

Snowboard taula salgai. Mer-
ke. 630452598.

Karabana txikia saltzen da
Castañaresen (Rioja). Abantza-
rekin eta sukaldearekin.
652758520.

Gurdi-denda salgai. Oso gu-
txi erabilia. 943881968.

Ziklo krosetako bizikleta sal-
gai, Flanders markakoa. 360
euro. 679445518.

Gitarra elektrikoa salgai,
Maison markakoa, Les Paul
modelo. Zorro gogorra ere
bai. Oso egoera onean. Prezio
negoziagarria. 16:00etatik aurrera
deitu. 628158142. Jon.

Egongelako armaria salgai.
2,90 x 2,40. 943085206 -
655737277.

**Hozkailua, arropa garbi-
gailua eta ur berogailua** (ur
beroa eta berogailua) salgai.

Elektratresna nahiko berriak
eta oso egoera onean.
943084002 - 650017295.

Sarrerako ate blindatua
salgai, osagarri guztiekin. Es-
treinatze dago. 943800078.

Fotodepilatzeko makina
salgai. Spatouch markakoa.
687436394.

AURKITUTAKO OBJEKTUAK

GPS bat aurkitu da Zerain
aldean. 627987310.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Emakumezko erlojua gal-
du zen martxoren 11n, Ataun
San Martingo elizaren parean.
630737181. Maider.

Camp markako kranpoia,
urdin koloreko sokarekin, gal-
du nuen, martxoaren 12an,
Aizkorriko "kanal handian".
652760692 - 652760658.

LANA

eskaerak

Auto garbategirako emaku-
mezkua behar da. 943161847.

Beasainen, neska euskalduna
behar da asteburuetan tabe-
rnan lan egiteko. 943085481.

Ormaiztegin emakumezkoa
behar da etxeko lanetarako.
Goizez, 5 orduz. 658721480.

Zerbitzari euskalduna eta es-
perientziaduna behar dugu,
arratsaldean lan egiteko.
608773041.

Seguran neska bat behar da,
goizez, etxeko lanak egin eta
haurrak eskolara eramateko.
943801088.

Zerbitzaria behar da barra-
rako. 605772623.

Emakumezkoa behar da
etxeko lanak egin eta haur bat
zaintzeko. 20:00etatik aurrera
deitu. 943028855.

Beasainen zerbitzaria behar
da. Egun osorako. Kontratuare-
kin. 685782717.

Araman, pertsona bat behar
da etxeko lanak egiteko, ordu-
ka. 650728717.

Sukaldari laguntzailea be-
har da tabernan lan egiteko.
605772623.

Zerbitzaria behar da astebu-
rutarako. 629160500 -
627122097.

eskaintzak

Emakumea eskaintzen da as-
tean hiru egunetan etxeko la-
nak egiteko. 943084046.

Haur hezkuntzako ikaslea
prest dago arratsaldetan 12
urte arteko haurrei klase par-
tikularrak emateko Beasain eta
Ordizia inguruan. 675005172.

27 urteko neska prest dago,
goizez, orduka, etxeak edo ata-
riak garbitzen lan egiteko.
687374559.

20 urteko mutila, prest da-
go edozein peoi lan egiteko.
Gidatzeko baimenarekin.
685711303.



izal

IMAZ eta CONTRERAS

943 187 049
943 187 045

Ondramuño ba-
serria
IDIAZABAL

PINTURA eta PAPERGINTZA

Ikaskide

Irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2004-2005
IKASTURTEA

INFORMATIKA-GELA

- ✓ Ikastaroak
 - Ingelera
 - Word, acces, excel
 - mekanografia
- ✓ Internet

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduluak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Talde txikiak

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku



**Pedro Jose Lan-
da Gutierrez**

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk BEASAIN

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**



Recuerdo de los Santos Ejercicios
Aránzazu 13-19-III-60

Ezkundu aurreko jardunaldiak Arantzazun

Zaldibiako Gregori Erauskinen utzi digun argazkia, 1960. urteko martxoaren 19an Arantzazun ateratakoa da. Zaldibia, Ormaiztegi... inguruko herrietako emakumezkoak ageri dira bertan. Guztiek ere, ezkondu aurreko Ariketa Santuetan parte hartu zuten, bertako fraileen eskutik.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira.
Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Arraiak parrilan

943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA




Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua

Karta
Sagardotegiko meua

943 88 77 26 ALTZAGA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420101

AURRE ZITA 943 887 221 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

biok
zerbitzuak

kudeaketa

fiskala

kontablea

merkatala

laborala

Tel 943 88 44 00
Faxe 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itxaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarriketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



E U Z K O A B E R T Z A L E A K

eusko
alkartasuna



EAJ
PNV





10

oskarbi oinetakoak

ordizia beasain zumarraga arrasate.